



Euskararen Foru Legeak komunikabideetan izan duen eragina

(The Basque language in Navarran media during the 20th century: incidence of the Law on the Basque language in information)



BIDADOR GONZÁLEZ, Joxemiel

Eusko Ikaskuntza
Gaztelu plaza 43 bis, 3.D
31001 Iruñea
vidador@wanadoo.es

BIBLID [1137-1951 (2003), 11; 59-64]

E

uskarak XX. mendean Nafarroako komunikabideetan izan duen presentziaren eta prentsa, irrati zein telebistan egun bizi duen egoeraren berri ematen zaigu jarraian, Euskararen Foru Legeak jasotakoaren itzalean. Halaber, diru-laguntzen banaketari ere arreta berezia eskaintzen zaio.

Giltza hitzak:

Komunikabideak. Euskara. Nafarroa. Diru-laguntzak.

E

l siguiente artículo tiene por objeto hacer un seguimiento de la evolución que ha tenido la presencia del euskera en los medios de comunicación del siglo XX, deteniéndose en las circunstancias actuales a la sombra de lo establecido en la Ley Foral del Vascuence. Además, presta especial atención a la distribución de las subvenciones.

Palabras clave: Navarra. Subvenciones.

D

ans le texte ci-dessous nous faisons l'écho de ce qui a été la présence de l'euskara dans les moyens de communications de Navarre tout au long du XXe siècle et on analyse la situation actuelle à l'ombre de la Loi Foral du Basque. On aborde, aussi, le sujet de la distribution des subventions.

Mots clés: Moyens de communication. Langue basque. Navarre. Subventions.

1. Sarrera

Interesgarria izan daiteke komunikabideen inguruko gaian XX. mende osoko segida begiratu eta kontuan hartzea, eta ez bakarrik azken hamabost urte hauetako garapena; izan ere, gaur egun daukaguna, azken finean, aurrez datorkigunaren emaitza da, neurri batean.

2. Euskara Nafarroako kazetaritzan 1939ra arte

Prentsa idatzian, Campion eta enparauen *Euskara* aldizkaria dugu aitzindari (1878-1883), non euskaraz taxuturiko kolaborazioak guztiz eskasak izan ziren. Salbuespena izan zitekeenak, Serafín Barojaren *Bai, jauna, bai* aldizkari elebidunak, adibidez, ez zuen jaso agintarien ez irakurleen onespenez, eta, harpidedun nahikorik erdietsi ez zuenez, desagertu egin zen seigarren zenbakia agertu ondoren.

XX. mendearen lehenbiziko laurdenean, euskaraz izkiriaturiko kolaborazio bakanak aldiari behin agertu ziren **Iruñeako kazetetan**. *La Tradición Navarra*-n kaleraturikoak herri kronikak izan ziren gutxi gehien: Joxemiel Insausti (*Aiztondo*) Aldatzik, Pablo Fermin Irigarai (*Feriri*) Baztandik, eta Teodoro Arburua (*Ibantelli*) Etxalartik. Jaulkipen handiagokoa zen *El Eco de Navarra*-n "Eguneroko berriak" izenburuko saila agertu zen 1912ko azken hiru hilabeteetan, Saturnino Ibarrolak egina, baina zinez eskasa. Mardulagoa izan zen, berriz, *Diario de Navarra*-k ateratako kolaborazioen kopurua. 1912an ere, Ibarrolaren beraren eta Juan Irigarainen idazki zenbait agertu ziren, eta 1915-1919 bitartean, igandez igande, Joxe Agerreren zutabea agertu zen. *El Pensamiento Navarro*-n ere, astero zutabe bat atera zuten 1918-1919 urteetan, Agustín Irigarai *Lepazar* ezizenez egina.

Argitalpen jeltzaleei zegokienez, Nafarroako Eusko Alderdi Jeltzaleak *La Voz de Navarra* egunkaria eta *Napartarra* zein *Amaiur* astekariak karrikaratzen zituen. Hiruetan, euskararen erabilera txikia izan zen, aldarrikaturiko asmoen arabera obligatua litzatekeena baino gutxiago. Adibide gisara, *La Voz de Navarra*-n, bere azken urteetan bakarrik, eta ez egunkaria itxi arte gainera, euskaraz eginiko sail finkoa agertu zen, Tapia Perurenaren agindupean zegoen "Egunekua" hain zuzen ere.

Komunikabide arruntez gain, eta euskararentzako suposatutako zutabengatik, kaputxinotarrek 1913az geroz *Hirugarren Prantziskotarra* eta 1919tik argitaraturiko *Zeruko Argia* euskara hutsezko hilabetekariak aipatu behar dira.

3. Euskararen erabilera diktadurapeko kazetaritzan

Alde batetik prentsa aipatu behar da, eta horretan Nafarroako Aldundiak 1957an sortu zuen Euskararen Sustapenerako Sailak *Príncipe de Viana* aldizkarirako euskal gehigarria eman zuen argitara 66tik 85era bitartean. Argitalpen honen iraupen gorabeheratsuak aski argi adierazten du diktadura bitarteko eta ondorengo urte korapilatsuak nolakoak izan ziren. Paperaren lehenbiziko zuzendaria Pedro Díez de Ultzurrun izan zen, 1973an dimisioa aurkeztu zuen arte. Hurrengo zuzendaria Marcelino Garde izan zen, agintariak gehigarriarekiko eta euskararekiko nozitzen hasi ziren jarrera berriaren adierazgarri.

Urte bertsuetan, *Diario de Navarra* egunerokoa euskarazko orrialdea hasi zen kaleratzen (1966ko apirilaren 21ean, hain zuzen ere), Díez de Ultzurrun, Aingeru Irigarai eta Jose M^a Satrustegi hirukoteak egina. Euskararen Sustapenerako Sailean gertatu antzera, honetan ere dimisioa aurkeztu zuten egileek 1976an, Marcelino Garderen eskuetan geratu zelarik zuzendaritza. Garde 90ean zendu ostean, orrialdearen ardura Euskarazaintzako hainbat kideri eman zioten *Diario de Navarra*-koek, Gaztañaga eta Oñatibiari lehenbizi, eta egunotan Latxaga eta Latiegi.

Ez kopuru berean, baina *El Pensamiento Navarro*-n ere euskaraz taxuturiko zenbait lan agertu ziren diktaduran zehar, bereziki Muthiko Alaiak elkarteak ontzen zuen *Zaldiko-maldiko* orrialdean.

Beste esparru batean, kaputxinoek beren *Zeruko Argia* argitaratzeari ekin zioten 1954an. Harpidedun kopurua altuxea bazen ere, arazo ekonomikoengatik aldizkaria 60tik 63ra bitartean ez zen argitaratu. Orduetik aurrera, eta Agustín Ezeiza fraidearen agindupean, aldizkariak beste bide berriago bat hartu zuen, idazle berrien lanak argitaratuz eta eduki erlijioso soiletatik hastanduz.

Irratiari dagokionez, esan behar da diktadurapean Nafarroan maiztasun batekin euskaraz emititu zuen lehenbiziko irrati *Rosarioko Amaren Irratia* izan zela, Jose Manuel Lasarte erretoreak 1958an Berueten martxan jarri zuena, eta agintariak 63an itxi zutena. Garai berean, 60tik 65era, Arantzako irratiak emititu zuen bertako apaiza zen Esteban Irigoienek.

Beste bi saio ere aipatu behar dira diktadura garai honetan: Iruriko apaizarena eta Iruñeko Domingotarren *Herri Irratia*, biak 50eko hamarkadakoak zirenak.

4. Foru Komunitateko euskarazko komunikabideak

4.1. Prentsa

80ko hamarkadan, *Navarra Hoy* egunkariak ostiralero ateratzen zuen “Nafarroa gaur” gehigarriaren garrantzia azpimarratu behar da bereziki. Aingeru Epaltzaren zuzendaritzapean, Eduardo Gil Bera eta Patziku Perurenaren ezagutarazteko balio izan zuen. Gehigarria, aterbetzen zuen egunerokoarekin batera, 94an desagertu zen. Egunkari honen ondorengo zuzena den *Diario de Noticias*-ek euskarazko orrialde bat ateratzen du ia-ia egunero. Alabaina, aukera ona izan zitekeena guztiz desaprobatuta geratu da, nahikoa antzu, elkor eta baliogabetua. Bidean egon liteke “Nafarroa gaur” zenaren ordezkia, baina hori denborak esanen du.

Diario de Navarra-k bere ohiko orrialdearekin jarraitu zuen, eta jarraitzen du egunotan. Honen kasuan, bitxia da mantendu izana, eta azken diru laguntzen banaketari behatzen bazaio, aise igartzen da orrialdearen beraren gainetik, honen bitartez egunkariak lor ditzakeen sosa badaudela. Izan ere, orrialdea guztiz garaiz kanpoko da, inor gutxik irakurtzen du, eta Nafarroako euskal gizartearen ez du inolako eraginik, are, jarraipenik.

Bestelakoa izan da *Euskaldunon Egunkaria*-k Nafarroarako hamar urtetan argitara eman duen *Nafarkaria* gehigarria, 1991tik 2001 urtera. Astekaria Nafarroako euskal idazle eta kazetarien bilgune garrantzitsua izan da, eta lan handia egin du komunitateko euskaldunen eragile gisa. Zoritxarrez, diru-laguntza galdu izanak azkartu du bere desagertzea. Honetan ardura zuzena Nafarroako Gobernuak badu ere, ezin da ahanzi *Euskaldunon Egunkaria*-ren arduradunek Andoaindik erakutsi duten interes eskasa.

Berez kazetari lana ez bazen ere, *Korrok* aldizkari literarioa ere aipatu beharra dago, berau izan baitzen 84tik 89ra iraun bitartean, Nafarroan eginiko euskarazko literatura modernoaren hasiera neurri batean markatu zuena.

Bestelako aldizkariaren artean, *Nabarra* aipatu behar da, 2001eko apiriletik hilabeteko Nabarrerian enpresak argitaratzen duena. Enpresa berak *Txantrean Auzolan* eta *Aldapa* aldizkaritxoak ateratzen ditu, non euskarak bere tokia ere baduen. Tokian tokiko aldizkariak zera esan behar da: azken urte hauetan aldizkari hauen kopurua biderkatu egin dela, tartean euskara hutsez eta euskara euren orrialdeetan agertzen dutenak daudela. Euskaraz bakarrik kaleratzen direnak, *Ttipi-ttapa*, Baztan-Malerreka-

Bortzirin, 80tik aurrera; *Mailope*, Araitx, Betelu, Larraun, Lekunberri aldean, 90etik aurrera; *Guaixe*, *Oixe* eta *Laisterka*, hiruak Sakanan, 95etik aurrera; *Axular*, Burlatan, 97tik aurrera; *Pulunpe*, Imotz, Basaburua eta Ultzaman, 98tik aurrera; *Marmari*, Leitzan, 2000tik aurrera; *Oihan ederra*, Arbizun, 2000tik aurrera; edota, Karrikiri elkartearen *Karrika* papera, Iruñan banatzen dena.

Erdaraz egiten direnen artean, *Ze berri?* izeneko hilabetekaria aipatu behar da bereziki, gutxiz gehien erdaraz idazten bada ere, euskararen normalkuntzarako egiten duen lan garrantzitsuegatik.

4.2. Irratia

Irratiaren egoerari begiratzen baldin badiogu, esan behar da euskararen agerpena irratiaren makurrera joan dela azken urteotan. Zortzi urtetan mantendu ostean, *Radio Nacional*-ek zeukan “Txuri ta beltz” saioa desagerrarazi zuen; berdin gertatu zen *Radio Popular*-en, orobat *SER* katean Javier Pagola kazetariak komunikabidea utzi ondoren. Bestalde, *NET 21* eta Nafarroako Unibertsitatearen irrati berriek ez dute guztiz bete baimen banaketa aurretik euskararen inguruan emandako hitza.

Euskalerrria Irratia-k Iruñerriko emititzen du 1980tik aurrera, eta, ezagun denez, oraindik ez zaio emititzeko baimenik eman, eta *Euskadi Irratia*-ren frekuentzian emititu beharra dauka. Aurtengo diru laguntzen deialdian, badirudi subentziorik gabe geratuko dela.

Tokian tokiko irratiak honakoxeak dira: *Xorroxin Irratia*, Baztanen, 75etik aurrera; *Aralar Irratia*, Lekunberri, Larraun, Araitx eta Betelun, 91tik aurrera; *Karrape Irratia*, Leitzan, 95etik aurrera; *Esan-Erran Irratia*, Anue, Lantz, Basaburua, Atetz, Odieta, Ultzama eta Imotzen, 98tik; eta *Beleixe Irratia*, Sakanan, 99tik. *Irati Irratia*, Pirineorako emititzen zuen irrati, 1913tik, egun itxirik dago. Guztien egoera ekonomikoa nahikoa latza da.

4.3. Telebista

Telebistari begiratzen baldin badiogu, esan behar da Nafarroako telebista espainolak euskarari ematen dion trataera ez dela bereziki ona. Lehenago, berrien emankizunean, euskarazko laburpena eskaintzen zuen, baina orain ordea, emankizunen aurretiko “Arin-arin” aparteko laburpena ematen du, betiere euskara

bazterrean utzi aldera. *Canal-4* eta *Sei Navarra* telebista kateek ere zerbait ematen dute euskaraz, baina gutxi. Eta Nafarroako Gobernuak berriki aditzera eman duenez, bi telebista digitalentzako baimenak emanen ditu, eta izanen dituzten betebeharren artean gaztelaniaz ematea egongo da.

Tokiko telebista euskaldunak Nafarroan bi dira: *Ttipi-ttapa telebista*, Bortziri eta Malerrekarako, 88tik aurrera, eta *Xaloe telebista*, Baztanen, 97tik. Hortaz, *Euskal Telebista*-k nafar euskaldunentzako duen garrantzia azpimarratu behar da, eta Nafarroako Gobernuak honen ikusteko jartzen dituen zailtasun guztiak uxatu beharko lirarteke, behintzat euskaldunon eskubideak ziurtaturik edukitzeko.

5. Euskararen Foru Legea eta diru-laguntzen erabilera politikoa

Azkenik, aipatu, Euskararen Legea eta diru-laguntzen erabilera politikoa. 1986ko abenduaren 15eko 18/86 Euskararen Foru Legeak, bere III. tituluan, Komunikabide sozialak deritzanean, horrela jasotzen du 27. eta 28. artikuluetan:

“27.1. Administrazio Publikoek bultzatuko dute euskararen mailaz mailako presentzia komunikabide sozial publiko eta pribatuetan. Horretarako, eta komunikabideek euskara gero eta gehiago eta ohiko moduan erabil dezaten, Nafarroako Gobernuak ekonomia eta materiale laguntza planak gauzatuko ditu.

27.2. Foru Komunitateak gestionatzen dituen telebista, irrati, emisora eta gainerako komunikabideetan, Nafarroako Gobernuak euskararen presentzia egokia begiratuko du.

28. Administrazio Publikoek babestuko dituzte euskaraz egiten diren adierazpen kultural eta artistikoak, liburu argitalpenak, ikus-entzunezko ekoizpena, eta bestelako ekintzak”.

Hizkuntza Politika Zuzendaritza Nagusitik bi modutara ulertu zen euskararen sustapena komunikabideetan. Alde batetik, diru-laguntzen bidez, eta bestetik Prentsaren Elkarateak sinaturiko euskalduntze plangintza baten bitartez. Hamabost urte hauetan, zera ikusi da ordea: bakarrik lehenbiziko bideari eutsi zaiola; hau da, diru-laguntzak ematearen bideari. Balorazioa, berriz, ez da batere ona: urte guzti hauetan emandako laguntzen kopurua ez da emendatu, hasierako 40 milioitik bereziki gora egin gabe. Aitzitik, komunikabideen kopurua handitzen joan da, banaketaren emaitza zein den aisa igarritz.

Bestalde, eta 2001eko diru banaketan gertatu zena gogoan harturik -hau da, Hizkuntza Politikaren zuzendaria den Pedro Pegenautek *Diario de Navarra*-rekin eginiko prebrikazio argia abiapuntu harturik-, etorkizunean eginen diren diru banaketan balioak eta hauen erabilera politikoa euskara bera zigortzeko, erraz aurreikus daitezke.

Hona hemen 2000-2001 urteetan emandako diru-laguntzen taula, diogunaren erakusgarri.

	Aurrekontua (2000-2001)		Diru-lag. (2000-2001)	
Gaztelaniazko hedab.				
<i>Diario de Navarra</i>	800.000	21.966.000	456.405	5.204.052
<i>Diario de Noticias</i>	3.000.000	4.660.000	1.074.936	2.283.400
<i>Edi. Gratuitas del Norte</i>	800.000	1.422.872	332.514	646.411
<i>La Voz de la Merindad</i>	675.000	1.192.243	253.261	377.361
<i>Txantrean Auzolan</i>	1.125.000	1.187.851	383.393	72.737
<i>Nafarkobi</i>	3.000.000		1.459.492	
<i>Mendixut</i>		1.030.050		195.755
<i>Aldapa</i>		1.228.493		71.744
Euskarazko hedab.				
<i>Tipi-ttapa</i>	26.103.124	26.713.949	7.167.116	6.048.062
<i>Guaixe</i>	11.630.000	12.670.000	2.902.131	3.325.560
<i>Axular</i>	2.915.680	3.624.000	877.850	1.512.776
<i>Mailope</i>	2.540.000	2.640.000	858.374	1.211.786
<i>Karrika</i>	2.741.628	2.276.300	932.671	1.144.144
<i>Pulunpe</i>	1.230.000	1.230.000	508.739	560.820
<i>Gu geu</i>	787.500	812.500	319.298	304.281
<i>Laisterkan</i>	787.500	812.500	304.828	292.094
<i>Marmari</i>		390.000	100.000	196.287
<i>Egunkaria</i>	21.479.807		7.286.400	
<i>Lurra</i>	910.000		401.793	
<i>Tentatu</i>			100.000	
<i>Xauli</i>			100.000	
<i>Lurra</i>		1.195.844		544.348
<i>Xuka</i>		330.000		129.420
<i>Euskalerria Irratia</i>	28.300.000	32.500.000	5.738.705	5.255.458
<i>Xorroxin Irratia</i>	19.881.985	20.855.548	5.052.218	4.164.167
<i>Beleixe Irratia</i>	6.200.000	8.650.000	1.995.991	2.362.500
<i>Irati Irratia</i>	4.970.800	6.196.934	1.586.293	1.896.397
<i>Esan-Erran Irratia</i>	5.132.000	5.292.640	1.493.830	1.794.480
<i>Karrape Irratia</i>	4.350.000	6.215.313	1.448.207	1.398.445
<i>Aralar Irratia</i>	3.965.443	3.463.702	900.755	1.097.776
<i>Xaloe TB</i>	22.250.000	20.750.000	2.645.669	3.892.750
<i>Tipi-ttapa TB</i>	20.403.240	29.974.367	2.819.131	2.914.966

Aipatzekoa da handitu egin dela *Diario de Navarra*-k jaso duen diru laguntza -2000. urtean milioi erdira iristen ez zena, 2001 urtean 5 milioi eta laurdenera iristen da ia, bere euskarazko orrialdearengatik-, eta, aldiz, hor daukagu *Euskalerria Irratia*, 62,5 milioiko aurrekontuarekin, ia-ia diru kopuru berbera duela. Bestalde, nabarmengarria da *Egunkaria*-k 2001 urtean bere diru laguntza galdu zuela, eta horren ondorioz gaur egun *Nafarkaria*-rik ez dugula.

Bukatzeko, nire ustez Legeak porrot egin duela esango nuke, behintzat euskararen normalkuntzarako komunikabideei dagokienez. Legeak ez du euskara komunikabideetan normaltzen lagundu. Adibide asko ditugu. Jadanik batzuk adierazi ditudan arren, baina berriz ere aipatzeagatik, hor ditugu, besteak beste, *Nafarroa gaur* desagertu zenean Nafarroako Gobernuak emandako erantzun ez-deusa; *Euskalerrria Irratia*-rekin gertatzen dena; *Nafarkaria* desagerrarazteko emandako erraztasuna, edo *Diario de Navarra*-ri 2001ean emandako diru-laguntza. Honi gehi dakioke 2002rako aurreikusten duguna.

Euskaldunok hemen, Nafarroan, ez daukagu bermaturik informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea, eta euskarazko komunikabideek prekarietatean aritu behar dute lanean. Aurretik aipatu dut XX. mende hasieran gertatu ziren diktadurak, gerrak eta abar. Azken diktaduratik atera ginenean, baikor izateko aukera geneukala pentsatu genuen, gauzak aldatzeko bidea eman zezakeen Euskararen Lege bat onartu zelako, baina 2000. urtean sartzean gauzak nahiko beltz ikusten hasi ginen, eta nahiko etorkizun itsusia.